ASMOZ TA JAKITEZ
ASMOZ TA JAKITEZ
EUSKO IKASKUNTZA

2007 otsaila/febrero/février
Nº 175 zenb.

# 'Euskonews Gaztea', gazteek gazteentzat

**Eusko Ikaskuntza lanza una nueva revista electrónica en euskera redactada por estudiantes de 14 a 17 años. Durante el primer año se les animará a recuperar una parte de la historia del siglo XX en sus comunidades locales**

Urtarrilaren 12an, ostirala, *Euskonews Gaztearen* lehen alea argitaratu zen. 1998tik Eusko Ikaskuntza argitaratzen ari den *Euskonews&Media* euskal zientzia eta kulturari buruzko astekariaren gazteentzako gehigarria da *Euskonews Gaztea*. Zenbait helburuerekin sorturiko proiektua dugu *Euskonews Gaztea*. Alde batetik, *Euskonews* aldizkariaren edukiak gazte jendearengana hurbiltzea; bestetik, ikasleei, irakurle izateaz gainera, aldizkariaren produkzioan parte hartzaileak izatea eskaintzea, modu horretara kazetaritza lanaren hasimasiak beretu ditzaten.

Bestalde, gazteak beren herrien oroimen historikoaz sentsibilizatu nahi ditu *Euskonews Gazteak*. Hartarako, hurbileko historiara gerturatzera animatzen ditu liburutegiak edo hemerotekak kontsultatuz eta iragan horretako protagonistengana joz (gurasoak, aitona-amonak, auzokideak) lehen eskuko informazioa biltzearren. Hala, erredaktore gazteek elkarrizketa eta erreportajeak egiten dituzte, eta, gainera, aldizkaria irudiztatzeko behar den material grafikoa bilatzen dute.

### Ikastoleei gonbita

Ikastola bateko 14-17 urte bitarteko gazteen talde batek egiten du *Euskonews Gaztearen* ale bakoitza. Dagoeneko, zazpi herrialdeetako hainbat ikastetxeren lankidetza hitzartua du *Euskonews Gaztearen* koordinazio taldeak, eta horrek edukien dibertsifikazio zabala bideratuko du. Euskal Herriko ikastetxe guztiak gonbidaturik daude proiektu honetan parte hartzera; nahikoa da aldizkariaren erredakzioarekin harremanetan jartzea 943 322296 telefono zenbakian edo euskonewsgaztea@gmail.com helbidera idaztea.

Aldizkariak formatu erakargarria du, eta gertukoa xede duen jendearengandik. *Euskonews&Media*, jatorrizko aldizkariaren ereduaren arabera egituraturik dago: Elkarrizketa (erredaktore gazteek beren herriko pertsona nabarmen bat elkarrizketatzen dute), Gaiak (artikulu nagusiak), Atzoko Irudiak (antzinako argazkiak), Informazioa (elkarte, talde eta instituzioekiko estekak) Foroa, eztabaida askerako gaiak proposatzen dituena eta Lehiaketa.

*Euskonews-&Media* aldizkariaren irakurketa maila nabarmenak (80.000 banako bisitari hilabetean) kontuan harturik, *Euskonews Gaztea* jende kopuru handira iritsiko ahal da eta gure nagusien iraganeko historia eta gure gazteen gaurko kezkak ezagutarazteko balioko ahal du.



### Lehenengo parte hartzaileak

* Laudioko La Milagrosa ikastetxea
* Trapagako Burdinibarra ikastetxea
* Gasteizko Olabide Ikastola
* Zaraobe Institutua (Amurrio)
* Bernart Etxepare lizeoa (Baiona)
* Laudioko institutua
* Oiartzo ikastola (Errenteria)
* Lizarra ikastola

**Bernart Etxepare Lizeoa**

Le numéro de *Euskonews Gaztea* du 9 février est consacré à cette ikastola de Baiona.

# Gipuzkoako Bazkideen Eguna: en una tarde fría, socios y socias compartieron un cálido encuentro

El 25 de enero tuvo lugar en Donostia-San Sebastián el primer Gipuzkoako Bazkideen Eguna de Eusko Ikaskuntza.

Pese a que la climatología de la jornada resultó muy adversa, los salones del Palacio Miramar reunieron a un número importante de guipuzcoanos llegados desde toda la provincia para participar en esta jornada dedicada a los socios y socias. Tomó en primer lugar la palabra la Vicepresidenta por Gipuzkoa, Teresa del Valle, para dar la bienvenida a las 56 personas e instituciones que durante 2006 se han incorporado a la Sociedad en Gipuzkoa.

A continuación, se proyectó un vídeo sobre la acción que Eusko Ikaskuntza viene desarrollando en colaboración con los Ayuntamientos vascos. El audiovisual hizo repaso al amplio catálogo de actividades que han sido realizadas en el marco de los cerca de ochenta convenios hasta la fecha firmados.

En su intervención, Javier Retegui puso de relieve el peso que el territorio guipuzcoano ha tenido en Eusko Ikaskuntza prácticamente desde su fundación en 1918. Enumeró brevemente las líneas de trabajo ahora en marcha dentro de la Sociedad y se detuvo en los principales proyectos para los próximos meses. Terminó su alocución con una invitación a la masa social a participar activa y reflexivamente en Eusko Ikaskuntza y en los importantes debates que desde su seno se están generando.



Durante el Gipuzkoako Bazkideen Eguna se impuso la Insignia de Plata a los más de doscientos socios (individuales o colectivos) con 25 años de antigüedad. En representación de este colectivo intervino Vicente Zaragüeta. Al final del acto, todos los socios que conmemoraban sus Bodas de Plata posaron para las cámaras momentos antes de compartir un vino de honor.

La parte musical de la ceremonia corrió a cargo de Musikene Gitarra Laukotea.

**Bazkideen Egunak**

Lurralde guztietan egitekoak dira Donostian, urtarrilaren 25ean, egindakoaren antzeko ekitaldiak.

www.eusko-ikaskuntza.org / www.euskonews.com

# Par accord

*A lo largo del año, una parte importante de la acción que Eusko Ikaskuntza despliega se dirige a la dinamización de la vida cultural y científica en el ámbito local.*

## Iruditan

Eusko Ikaskuntzak bideo bat argitaratu du hitzarmena sinatua duten Udalekin egindako lana aurkezteko.

Ikus-entzunezko honek bost minutuan doi-doi eta aurkezpen dinamiko eta erakargarri baten bidez, Eusko Ikaskuntzak tokiko mailan aurrera daraman jardueraren filosofia erakusten du eta euskal geografia osoan zehar sorturiko jarduera mota nagusiak deskribatzen ditu, *Ondare, Ikerketa, Prestakuntza* eta *Zabalkunde* alorretan.

Donostian, urtarrilaren 25ean egindako Gipuzkoako Bazkideen Egunean aurkeztu zen bideo hau.




## Investigación premiada

En su número 39, la colección Lankidetzan publica la investigación galardonada con el I Premio Angel Cruz Jaka concedido por el Ayuntamiento de Zumarraga. Se trata del estudio *De herradores, albéitares y veterinarios municipales de Zumarraga (Gipuzkoa)*, obra de José Manuel Etxaniz Makazaga.




El libro repasa los orígenes de la ciencia veterinaria, se detiene en la semblanza de los veterinarios que desde 1879 han prestado sus servicios en la villa, así como a sus hermandades de ganaderos. Esta publicación ha sido realizada en el marco del convenio de colaboración suscrito entre Eusko Ikaskuntza y el Ayuntamiento de Zumarraga.

## Zambrana

Eusko Ikaskuntzaren eta Zambranako Udalaren arteko hitzarmenaren esparruan, beka bat eman zitzaion Beatriz Perea Pardo Eusko Ikaskuntzako bazkideari Arabako herri horretako etorkizuneko Udal Liburutegiko funts bibliografiko guztiak ordenatu eta sailkatzeko. 2005ean inauguratu zen Zambranako Udal Liburutegia funts bibliografiko aberatsaren jabea da, batez ere herriari eta bertako eskualdeari dagokionez. Bekadun horrek, 2007an zehar, edukien katalogazioa eta sailkaketa amaitzeaz gainera, erreserbako funtsak biltzen dituen gordailua berrantolatu beharko du.

## Saria andereñoentzat

Urtarrilaren 28an, hamaika andereño beteranok osaturiko talde batek Sabino Arana Saria jaso zuen, izen bereko Fundazioak emanik.

Horren bidez ezagutzen zitzaien "geure kultur nortasuna eta geure hizkuntza, euskara, biziberritzea bezain esparru garrantzitsuan klandestinitate eta jazarpen erregimen hartan frankismoaren aurka" borrokatu izana.

Saria jaso zuten hamaika andereñoek horren sinboloa den urrezko txanpona Eusko Ikaskuntzaren zainpean gordailutzea erabaki zuten, harik eta euskal ikastolaren historia jasoko duen oroitzapenezko Museoa edo Zentroa eraiki arte.

Eusko Ikaskuntzak historian zehar euskarazko irakaskuntza berreskuratzean izan duen esanahia publikoki aitortu nahi izan dute keinu horrekin saritutakoek.



Urtarrilaren 30ean, Sabino Arana Fundazioak emandako Sari hori hartu zuen Javier Reteguik eta opa izan zuen, lehenbailehen, duintasunez, dagokion lekua har dezan. Argazkian, ezkerretik eskuinera: Itziar Arzelus, Nekane Auzmendi, Javier Retegui, Karmele Esnal eta Kontxita Beitia.

# En voz alta

*Les réflexions des groupes de travail et des instances rectrices d'Eusko Ikaskuntza se font connaître dans des forums tels que ceux qui ont eu lieu au janvier.*

## À Bayonne

Dans le cadre des projets de collaboration transfrontalière Euskadi-Aquitaine, les Journées Lurralde Antolaketa eta Kudeaketa Euskal Herrian, organisées par Eusko Ikaskuntza et le Centre d'Etudes Basques ont eu lieu à Baiona les 18 et 19 janvier. Des spécialistes en Anthropologie, Sociologie, Droit, Histoire, Géographie et Psychologie ont présenté leurs exposés et ont débattu tout au long de ces deux jours, à l'issue desquels une série de conclusions ont été rédigées dans le but de servir de matériel de réflexion aux instances publiques face au problème de la rapide transformation des paysages et de la perte de patrimoines qui y sont associés.



## Hitzaldia Laudion

Javier Retegui, Eusko Ikaskuntzako lehendakaria gonbidatu zuten Laudion hitzaldi bat ematera urtarrilaren 20an, hiri horretan eta inguruan oroimen kolektiboari buruz mamitzen ari den gogoeta prozesuaren kariaz. *Perfilando una vocación colectiva* izenburuko hitzaldian, oraingo une historikoa aztertu zuen Javier Reteguik, garrantzizkoak izango diren aldaketak gertatzen ari baitira gaur egun, eta gogoeta eta lidergo gune berriak sortzeko abiaburu izango den "bokazio kolektibo bat" eratzearen alde egin zuen. Argazkian, ezkerretik eskuinera, Sant Roque Kofradiako buruzagia, Javier Retegui eta Javier Salcedo, *Recuperación de la Memoria Colectiva en Llodio* proiektuko zuzendaria.



## Fondo José Mª Arizmendiarrieta

Eusko Ikaskuntza ha recibido el encargo de procesar la totalidad del fondo documental privado de José María Arizmendiarrieta (1915-1976), impulsor del movimiento cooperativista mondragonés. Dicho fondo se compone más de 4.000 documentos, 6.000 fichas, 2.000 páginas de escritos y entre 150 y 200 fotografías. Este trabajo lo realizará la Sociedad de Estudios Vascos a través de su Fundación Euskomedia.

Todas las unidades documentales serán catalogadas en soporte informático, previa digitalización de las mismas. Asimismo, todos los escritos serán tratados en OCR (reconocimiento óptico de caracteres), para permitir el acceso y búsqueda a texto completo.

En este momento ya han sido digitalizadas y procesadas en formato OCR los libros: *El Hombre cooperativo*, *José María Arizmendiarrieta. Biografía*, *El otro Don José María* y *Pensamientos*. Todos ellos se pueden encontrar en el Fondo Editorial de euskomedia.org.



**'Arretzinaga'**

kazetaritza izengoitia zuen "Munduan enpresa eta giza erreferentzia" gisa definitu dutenak.

## Comité Ejecutivo, en Bera

Como despedida al cincuentenario de Pío Baroja celebrado en el 2006, el Comité Ejecutivo de Eusko Ikaskuntza celebró su sesión ordinaria del 19 de enero en la localidad de Bera.

En la misma se aprobó el borrador al Plan Gestión 2007, fue nombrado el comité técnico para el Plan de Euskaldunización y se fijó la realización de un plan piloto sobre la imagen de Eusko Ikaskuntza entre la juventud guipuzcoana.

Los miembros del Comité rindieron visita a Itzea, la mansión de los Baroja, donde fueron recibidos por Pío Caro Baroja, sobrino del gran escritor donostiarra (en la foto).



# Arts et lettres

*Las Secciones de Lengua y Literatura, y de Artes Plásticas y Monumentales han preparado sendos ciclos sobre temas de indudable interés.*

## Ley de Museos

**Jornadas itinerantes*

La Sección de Artes Plásticas y Monumentales ha programado unas Jornadas sobre la Ley de Museos, que se desarrollarán con carácter itinerante a lo largo del mes de mayo y junio. El objetivo de estos encuentros es analizar la nueva Ley de Museos y la repercusión que pueda tener sobre la red museística vasca. Las sesiones se desarrollarán como sigue:

5 de mayo: Artium de Gasteiz

12 de mayo: Museo Vasco de Baiona

19 de mayo: Museo de Navarra, en Iruñea

26 de mayo: Museo de Bellas Artes de Bilbao (en la foto)

2 de junio: Museo San Telmo de Donostia.



## Literatura eta Zinema

**Hitzaldi zikloa*

Hizkuntza eta Literatura Sailak, aurreko urteetan bezala, literatura gaien inguruko hitzaldi ziklo bat antolatu du Gasteizen. Oraingo honetan lau hitzaldi emango dira Literatura eta Zine munduarekin zerikusia duten pertsonen ardurapean, hori izango baita heldu beharreko gaia.

Hona egitarau osoa:

Martxoaren 7an: Aitzpea Goenaga, *Zeru horiek: Testutik pantailara*.

Martxoaren 28an: Aritz Gorrotxategi, *Euskal zinemaren historia bat*.

Apirilaren 25an: Alvaro Rabelli, *Karetik filma aztertzen*.

Maiatzaren 9an: Harkaitz Cano, *Literatura, gidoia, zinema*.




# Linguanet

**Lan munduko euskara planen inguruko ikastaroa*

Asmoz Fundazioak, laugarren aldiz, Linguanet antolatu du, lan munduko euskara planen inguruko ikastaroa alegia. Euskararen erabilera bultzatzeko egitasmoak ugalduz doaz azken urteotan eta euskara erabiltzen diren espazioak zabalduz joan daitezen gero eta gehiago dira euskara planetan murgildu diren enpresak. Planen kopurua handitzeak ekarri du, besteak beste, erabiltzen den metodologia sendotzen, hornitzen eta erabiltzaile berriengana zabaltzen joatea.

Horren adiera da, laugarren urtez jarraian, Asmoz Fundazioak eta Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, Emun, Elhuyar eta Artez elkarteekin elkarlanean, internet bidez antolatzen duen Linguanet ikastaroa. 50 ordutako ikastaro honek, internet bidez, euskara planen inguruko oinarrizko ezagutza teorikoa eskaintzea du helburu. Eguneroko praktiken esperientziak ezagutzeko aukera aurrez aurreko hiru tailer praktikoen bitartez izaten da. Hortaz, ikastaroak pedagogikoki formazio malgua, arina eta trinkoa eskaintzen du.

Euskararen erabilera sustatzeko lanean dihardutenei zuzenduriko formazioa izanik, hartzailea eremu askotarikoa izan daiteke: erakunde eta enpresetako teknikari eta koordinatzaileak, lan munduan aritzeko asmoa duten ikerlari eta ikasleak, euskararen presentzia areagotzeko lanean dihardutenak, hizkunde publikoetako langileak, hizkuntza normalkuntzako arduradunak,...

Ikastaroaren arrakastaren partaide dira ere laguntzaile eta irakasle moduan dabiltzan herri administrazio eta esparru sozioekonomikoetan dihardUten hizkuntza plangintzako profesionalak.

Otsailaren 26an hasi eta maiatza bitarte iraungo duen ikastaro honen informazio orokorra eta izen-emate orria Asmoz Fundazioko http://linguanet.asmoz.org webgunean topa daitezke.

# Ikerketarako bekak

*Junto con las Becas Angel de Apraiz y Agustín Zumalabe, creadas en 1983, se convocan otras dos juntamente con el Institut d'Estudis Catalans y la Universidad de Ginebra.*

## Université de Genève

**Jusqu'au 15 mars*

Eusko Ikaskuntza et l'Université de Genève, dans le cadre de leur accord de collaboration, offrent une bourse pour que des docteurs ou des candidats au doctorat dont les thèses se trouvent dans une phase très avancée développent dans cette Université une recherche liée aux sciences de l'éducation, avec une attention toute spéciale aux processus d'acquisition et d'apprentissage des langues, en qualité d'*Hôte de relations internationales*.

La dotation économique de la bourse sera de 2.116 euros par mois. Le délai d'admission des sollicitudes se termine le 15 mars.

## Apraiz eta Zumalabe

**Otsailaren 28a arte*

Hilaren azkeneko egunean itxiko da Angel Apraiz (Arte Plastikoak eta Monumentalak, Zinematografia eta Musika) eta Agustín Zumalabe (Natur Zientziak, Hezkuntza, Folklorea, Osasun Zientiak, Zientzia Fisiko-Kimikoak, Matematika eta Teknologia) beketarako ikerketa proposamenak onartzeko epea.



Beka biek urtebeteko iraunaldia dute eta 4.600 euro gordin dira guztira dagokien diru kopurua. Interesatuek Eusko Ikaskuntzaren web orrian aurkituko dituzte beka bien oinarri guztiak.

## Premio EI-CL

**Humanidades, Cultura, Artes y Ciencias Sociales*

Se ha abierto el plazo de recepción de candidatos a la XIII edición del Premio Eusko Ikaskuntza-Caja Laboral al curriculum vitae más destacado. Pueden optar investigadores, científicos y personalidades de la cultura en activo que operan en el campo de las Humanidades, Cultura, Artes y Ciencias Sociales. La obra global de la persona premiada deberá haber contribuido de manera efectiva al desarrollo cultural de Vasconia. Las candidaturas podrán ser presentadas por el propio interesado, por institutos o departamentos universitarios o por entidades científicas y culturales. Se otorgará un único premio por un importe de 18.000 euros. El plazo para la presentación de candidaturas concluye el 30 de abril.

## Beca para Cataluña

**Estudios comparativos*

El 15 de marzo concluye el plazo de admisión de propuestas a las becas que otorgan Eusko Ikaskuntza y el Institut d'Estudis Catalans dirigidas a jóvenes investigadores interesados por algún aspecto concreto tanto de la cultura catalana como de la vasca, y con preferencia a los proyectos para estudios comparativos entre ambas culturas.

El importe de la beca es de 3.600 euros, y corresponde al pago de gastos de estancia de tres meses en alguna zona catalanoparlante. Los candidatos habrán de ser licenciados o graduados en facultades universitarias o centros de enseñanza superior en los últimos diez años.

# Lan eskaintza

Eusko Ikaskuntzak honako lanpostua betetzeko eskaintza egiten du:

- Argitalpen arloan, liburuen produkzioan, lan egitea
- Donostiako egoitzan lan egitea
- Denbora osoko kontratua. Aldi baterako kontratua, baino egonkortasuna lortzeko aukerarekin
- Elkarteak dituen parametroen araberako soldata

Zer eskatzen dugu:

- Argitalpen munduan esperientzia izatea
- Kudeaketarako eta administrazio lanetarako gaitasuna
- Hiru hizkuntza, gaztelera eta euskara barne, erabiltzea. Hirugarren hizkuntza frantsesa edo ingelesa delarik.
- Informatika menperatzea, bereziki honako programak: Word, Access, Excell, Photoshop eta Freehand

Hautagaiak aurkezteko epea otsailak 28an amaituko da.

Hautagaiak beraien CVa emailez (admin@eusko-ikaskuntza.org) zein postaz aurkeztu dezakete. Helbidea: Eusko Ikaskuntza. Miramar Jauregia. Miraconcha, 48. 20007 Donostia.

Erreferentzia: *Lan eskaintza.*

# Eusko Ikaskuntza y Debegesa: un convenio que abre nuevas oportunidades



**Juan Angel Balbas**

Director Gerente de Debegesa

"Promover el desarrollo sostenible de la comarca, desde una perspectiva económica, social, estratégica y solidaria con la comarca de Debabarrena, fomentando la mejora de la competitividad de las empresas y la calidad de vida de la ciudadanía". Esta es precisamente nuestra misión y así se recoge en la recientemente presentada Estrategia de Desarrollo Sostenible 2020.

Debegesa viene desarrollando y reforzando una línea de trabajo para la consolidación de una red de alianzas estratégicas con entidades representativas de la CAPV en materia de investigación e innovación. El objetivo último es trasladar a la comarca los resultados de los proyectos de investigación desarrollados, la experiencia y el conocimiento acumulado en estas instituciones para, de esta manera, poder aumentar la competitividad y la capacidad de innovación de nuestra comarca. El convenio firmado con Eusko Ikaskuntza viene a representar, sin duda, un paso cualitativo importante en la configuración de esta red de colaboración que es, a su vez, una herramienta indispensable para avanzar en la consolidación de la Estrategia de Desarrollo Sostenible 2020.

**Trabajar juntos**

*La capacidad de las organizaciones para trabajar juntos con el objetivo de lograr objetivos comunes y beneficios compartidos es estratégica en el contexto actual*. En una sociedad como la presente, caracterizada por la información y el conocimiento, tenemos el convencimiento de la necesidad de avanzar en la configuración de una red donde poder intercambiar información, coordinar proyectos, compartir valores o innovar conjuntamente.

La firma de este convenio abre, sin duda, una nueva etapa de colaboración que permitirá desarrollar investigación social de forma conjunta, compartir información socioeconómica, poner en marcha proyectos de interés para la comarca o fomentar el uso de las tecnologías de la información y la comunicación. Este es nuestro marco de actuación o nuestra aspiración a la hora de abordar esta etapa de colaboración. Consideramos que el carácter multidisciplinar de Debegesa y Eusko Ikaskuntza, su carácter afín, abre multitud de oportunidades para ambas entidades.

Desde Debegesa, entendemos que la colaboración se podrá centrar en áreas de interés común como puede ser la cultura, el mundo empresarial, la capacidad de innovación o el desarrollo sostenible. Son ámbitos en los que venimos trabajando durante muchos años, tratando de contribuir al desarrollo socioeconómico de Debabarrena, desde una perspectiva sostenible.

> **«Gaurko testuinguruan, funtsezkoa da erakundeek elkarrekin lan egin dezagun helburu komunetan»**

**Compromisos**

Los caminos para avanzar en esta dirección pueden ser muy diversos pero hemos asumido algunos compromisos. Así, nos comprometemos a:

· Participar activamente en grupos de trabajo de distinta índole.

· Colaborar activamente en áreas de interés (cultura, empresas, innovación Agenda 21) a través de proyectos de investigación.

· Fomentar el uso de las TIC en distintos ámbitos de Debabarrena.

· Difundir las actividades investigadoras de Eusko Ikaskuntza a través de links en nuestra página web.

· Compartir y difundir información de interés, vinculada a los observatorios socio económicos de ambas entidades.

· Poner a disposición de Eusko Ikaskuntza el fondo fotográfico de la comarca.

· Apoyar a Eusko Ikaskuntza en la difusión de las acciones formativas de Fundación Asmoz.

Honenbestez, sinergiak ahalbideratzeko ordua iritsi da, borondate eta asmo guztiak lantzeko ordua. Lehenengo haziak erein ditugu, baina ez da nahiko noski, orain lurra lantzea dagokigu. Albisterik onena asmo hauek guztiak errealitate bihurtzea litzateke, landutako lurretatik uzta aberatsa jasotzea. Hauxe da, noski, gure asmoa.

## Agenda

**Otsaila / Febrero / Février**

6: Reunión de Presidentes de Sección
15: Donostia. Joxemartin Apalategiren Oroimenez
16: Mutriku. Comité Ejecutivo
Gasteiz. Conferencia de Glais Sales Cordeiro
21-24: Gasteiz. Homenaje a Micaela Portilla. Jornadas In Memoriam
24: Reunión de la Sección de Prehistoria-Arqueología
28: Fin becas Apraiz y Zumalabe

**Martxoa / Marzo / Mars**

7: Gasteiz. Literatura eta Zinema: Aitzpea Goenaga
15: Fin becas para Cataluña y Universidad de Ginebra
16: Baiona. Comité Ejecutivo. Comisión Académica
28: Gasteiz. Literatura eta Zinema: Aritz Gorrotxategi

**Apirila / Abril / Avril**

25: Gasteiz. Literatura eta Zinema: Alvaro Rabelli
30: Fin de candidaturas al Premio Eusko Ikaskuntza-Caja Laboral

**Maiatza / Mayo / Mai**

5: Gasteiz. Jornadas sobre la Ley de Museos
9: Gasteiz. Literatura eta Zinema: Harkaitz Cano
12: Baiona. Jornadas sobre la Ley de Museos
15: Presidentes de Sección
18: Comité Ejecutivo
19: Iruña. Jornadas sobre la Ley de Museos
26: Bilbo. Jornadas sobre la Ley de Museos
26: Junta General de Socios

## LIBURUAK

**Cuestión de confianza. Más allá de la inteligencia emocional**

JIMÉNEZ MUNIAIN, Sixto.
Madrid: ESIC, 2006




El último libro de Sixto Jiménez demuestra que, más allá de la inteligencia emocional, como cimiento del éxito de una Organización, está la creación en su seno de una cultura de confianza. Esta cultura aumenta el nivel de satisfacción y motivación de los colaboradores y su ambición por lograr metas más altas, al tiempo que reduce los enormes costes ocultos del exceso de control y de la falta de identificación con los objetivos comunes. El autor aporta un método concreto para transformar la Organización en un motor de cambio, en un reto continuo con máxima implicación: la micromejora permanente. *Cuestion de confianza* va dirigido a empresarios, directivos, dirigentes políticos y personas interesadas en la mejora de la capacidad de las organizaciones.

**Bulletin du Musée Basque. Hors-série, 2006**

Baiona: Société des Amis du Musée Basque & Eusko Ikaskuntza, 2006




Sous le titre générique de " Territoires et Vies / Herrialde eta Bizialdi ", ce numéro hors-série marque les 50 ans de la Société des Amis du Musée Basque (SAMB). Il renferme une série de travaux largement inédits, centrés sur l'anthropologie. On y trouvera une revue des études biologiques sur l'histoire du peuplement ; un exposé des caractéristiques essentielles du droit basque en matière de structure de la société traditionnelle ; l'euskara et la distinction des sexes ; sur la conception de l'autorité, du politique ainsi que sur la transmission de *l'etxe*; les interactions entre communautés ; sur la manière dont l'homme se projette dans la nature ; sur les modalités d'irrigation de la montagne labourdine et sur les échanges d'animaux avec la Navarre, entre autres thèmes abordés par des spécialistes appartenant à la SAMB et à Eusko Ikaskuntza.

**Argitaratzailea:** Eusko Ikaskuntza. Miramar Jauregia, Miraconcha, 48. 20007 DONOSTIA. **Secretario Técnico de Publicaciones: Jose Angel Ormazabal.**- L.G.: SS-1056/92. ISSN 1133-9861. **Inprimategia**: Juaristi. Itziar
**Harpidetzak:** Asmoz ta jakitez etxean jaso nahi baldin baduzu, idatzi edo dei egin ezazu helbide hauetara:
**Eusko Ikaskuntzako Bulego Nagusiak:** Miramar Jauregia, Miraconcha, 48. 20007 DONOSTIA. Tel. 943-310855. Fax 943-213956. E-mail: ei-sev@eusko-ikaskuntza.org. **Arabako Bulegoa:** General Alava, 5-1º. 01005 GASTEIZ.Tel. 945-231552. Fax 945-148752. E-mail: gasteiz@eusko-ikaskuntza.org. **Bizkaiko Bulegoa:** María Díaz de Haro, 11-1. 48013 BILBAO. Tel. 94-4425287. Fax 94-4414650. E-mail: bilbo@eusko-ikaskuntza.org. **Nafarroako Bulegoa:** Pl. del Castillo, 43 bis, 3. D. 31001 IRUÑEA. Tel. 948-222105. Fax 948-211737. E-mail: iruna@eusko-ikaskuntza.org. **Iparraldeko Bulegoa:** 51 quai Jauréguiberry. 64100 BAIONA. Tel. 559598290. Fax 559461844. E-mail: eusko-ikaskuntza1@wanadoo.fr. Ordutegia: Astelehenetik ostegunera 8:30etik 14:00etara eta 15:30etik 18:00etara; ostirala, 8:00etatik 15:00etara. Horario: De lunes a jueves de 8:30 a 14:00 y de 15:30 a 18:00 h.; viernes de 8:00 a 15:00 h. Baiona: Astelehenetik ostiralera 9:00etatik 12:00etara eta 15:00etatik 18:00 etara. Horaire: Du lundi au vendredi de 9:00 à 12:00 et 15:00 à 18:00 h.